



UDALAREN OSOKO BILKURA 2005eko maiatzaren 19ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYA jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko maiatzaren hemeretzioko iluntzeko zortziak eta hamar direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA** jauna izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1º.- 2005-04-28ko OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, bi mila eta bosteko apirilaren hogeita zortzian egindako ohiko bileraren akta onetsi du.



2º.- 2004-12-31ko ONDASUNEN UDAL INBENTARIOA ONESTEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko maiatzaren 17an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 322/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko maiatzaren 10ean hartutako 71. irizpenak honakoa dio:

Aztertu dira udal ondasunek 2004-01-01 egunean zuten egoera, sarrera, irteera eta amortizazioak eta 2004-12-31 egunean Udaleko, Udal Euskaltegiko eta Soinu Atadia Fundazio Publikoko ondasunek zuten azken saldoa. Horien laburpenak honako koadro hauetan zehaztu dira:

UDALEKO INBENTARIOA

IZENBURUAK	HASIERAKO SALDOA 2004/01/01	SARRERAK	irteerak	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2004/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	66.670.133,69	15.610.679,60	760.835,74	404.553,56	81.115.423,99
Lurrak	6.751.436,80	3.621.686,69	473.127,24	0,00	9.899.996,25
Eraikinak	21.655.793,89	8.975.614,94	287.708,50	261.015,57	30.082.684,76
Higiezinetakoa hobekuntzak	3.332.682,62	1.691.397,08	0,00	143.537,99	4.880.541,71
Instalazioak	100,00	0,00	0,00	0,00	100,00
Herri bideak	34.930.120,38	1.321.980,89	0,00	0,00	36.252.101,27
2. Eskubide errealak	390.720,96	14.819.391,83	9.530.000,00	0,00	5.680.112,79
3. Higigarri historiko-artistikoak	388.931,78	1.202,02	0,00	0,00	390.133,80
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	217.935,75	45.983,41	29.334,18	33.295,27	201.289,71
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	2.089.385,24	899.999,73	39.764,07	207.085,43	2.742.535,47
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	501.046,45	0,00	0,00	0,00	501.046,45
GUZTIRA	70.258.153,87	31.377.256,59	10.359.933,99	644.934,26	90.630.542,21

EUSKARAREN ERAKUNDEA

IZENBURUAK	HASIERAKO SALDOA (€) 2004/01/01	SARRERAK	irteerak	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2004/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lurrak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Eskubide errealak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	65.246,93	4.018,56	0,00	7.332,13	61.933,36



8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	65.246,93	4.018,56	0,00	7.332,13	61.933,36

SOINU-ATADIA FUNDAZIOA

IZENBURUAK	HASIERAKO SALDOA (€) 2004/01/01	SARRERAK	irteerak	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2004/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lurrak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Eskubide errealak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	201.960,78	25.761,30	0,00	19.410,48	208.311,60
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	201.960,78	25.761,30	0,00	19.410,48	208.311,60

Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onetsi zuen ekainaren 13ko 1.372/1986 Errege Dekretuaren 33. artikulua honakoa adierazten du: urtero egiaztatuko da inbentarioaren zuzenketa. Xedapen horren 34. artikulua dioenaren arabera, Inbentarioaren onespena, zuzenketa eta egiaztatpena erabakitzeko eskumena duen organoa udalaren osoko bilkura izango da.

Luze aztertu dira 2004ko ekitaldian ondasun eta eskubideek izan dituzten era guztietako gorabeherak.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio 2004-12-31ko inbentarioa zuzentzeari; era berean, egoki iritzi dio 2004-12-31ko inbentarioa zuzentzeari buruzko gaia osoko bilkuraren hurrengo bilerako aztergaien zerrendan sartzeari.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Ondasunen Udal Inbentarioaren 2004ko abenduaren 31ko zuzenketa onestea erabaki du, aurkeztu den terminoetan.



3º.- EUDEL ETA IBERDROLA S.A. (MERKATURATZAILEA) MERKATARITZA-ETXEAREN ARTEAN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONESTEA, SAREAK ALOKATZEN DITUZTEN ENPRESENTZAKO TOKIKO HERRI JABARIAREN BAKARREKO ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIKO TASA UDALAK KUDEATZEKO. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko maiatzaren 17an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 323/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko maiatzaren 10ean hartutako 73. irizpenak honakoa dio:

Batzordera bertaratu diren kide guztiei eman zaie Eudel eta Iberdrola S.A.aren artean sinatutako hitzarmenari, tokiko herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa udalak kudeatzeko.

Ondoren, hitzarmena sinatzearen helburua azaldu da.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio EUDEL eta IBERDROLA S.A.aren arteko hitzarmena sinatzeari, tokiko herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa kudeatzeko. Era berean, egoki iritzi dio udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarreko aztergai-zerrendan udala hitzarmen horri atxikitzeo puntua sartzeari.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeo ipini beharko da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Kasu honetan hitzarmena Iberdrola, S.A.rekin egin dela adierazi du, baina beste hornitzaile batzuekin ere antzeko hitzarmenak sinatzeo aukera aztertzen dabilzala azaldu du. Izan ere, Frantziako enpresak ere badaude, une jakin batzuetan, energia eskari zehatzak dituztenak eta sarera entxufatu eta energia hornitzen dutenak. Hori dela eta, horiek ere hartu nahi dira, dagozkien kuota udalerrietan sartzeko.

Bukatzeo adierazi du antzeko hitzarmen bat kudeatzen dabilzala gas-sareetarako.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez, onetsi egin du** udal hau Eudel eta Iberdrola, S.A.aren arteko hitzarmenari atxikitzea, "tokiko herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa udalak kudeatzeko".

4º.- ELIZA KATOLIKOA – BILBOKO ELIZBARRUTIA ETA LEIOAKO UDALAREN ARTEAN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONESTEA, 7 C “SAN BARTOLOME HISTORIKOA” ARLOAN ELIZA BAT ERAIKITZEKO AUKERA EMANGO DUEN AZALERA-ESKUBIDEA SORTZEKO: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko maiatzaren 17an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 327/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko maiatzaren 10ean hartutako 79. irizpenak honakoa dio:

Eliza Katolikoa – Bilboko Elizbarrutia eta Leioako Udalaren artean sinatzeko Hirigintzako Administrazio Nagusiko teknikariak idatzi duen hitzarmenaren kopia bana eman zaie Batzordeko kideei; hitzarmena 7C “San Bartolome Historikoa” arloan eliza bat eraikitzeke aukera emango duen azalera-eskubidea sortzeko da.

Hirigintzako Administrazio Nagusiko teknikariak egindako txostena aztertu da, aipatutako hitzarmenari aplikatu dakizkiokeen legeen arabera.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Batzorde honetako buruak, zehatz azaldu du Eliza Katolikoaren eta Leioako udalaren arteko hitzarmena.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio Eliza Katolikoa – Bilboko Elizbarrutia eta Leioako Udalaren artean sinatu beharreko hitzarmenari, 7C “San Bartolome Historikoa” arloan eliza bat eraikitzeke aukera emango duen azalera-eskubidea sortzeko. Era berean, egoki iritzi dio udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarreko aztergai-zerrendan berau onesteari buruzko puntua sartzeari.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

Hirigintza, Garraio eta Etxebizitzako Batzordeak 2005eko maiatzaren 18an hartu zuen 57 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeko buruak Eliza Katolikoa – Bilboko Elizbarrutia eta Leioako Udalaren artean sinatu beharreko hitzarmenaren proformaren berri eman du; hori, 7 C-San Bartolome Historikoa arloan eliza bat eraikitzeke aukera emango duen azalera-eskubidea sortzeko da. Era berean adierazi du gai hori Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren aztertu dela eta hurrengo osoko bilkuran ere eztabaidatuko dela. Nolanahi ere, Alkatetza-Udalburutzak egoki iritzi dio, aurretiaz, Batzorde honetan, azalpen egokiak emateko aukerari.

Jarraian, Udaleko Zerbitzu Teknikoek zabal azaldu dituzte gai honi eragiten dioten ezaugarriak, hirigintzakoak zein juridikoak. Horrela bada, azalera eskubidea ezartzea interesgarria dela pentsatu da, herritarren eskaria konpondu eta gunean eliza bat eduki ahal izateko.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordea jakinaren gainean eta ados geratu da.

EB-Berdeak taldeko ordezkariak osoko bilkuran gai honen kontrako botoa emango duela aurreratu du.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Gai honen kontrako botoa emango dutela adierazi du, gaia garatu bitartean adierazi dutenari jarraituz. Izan ere, gaur egungo elizaren jabeak higiezinaren negozioa egiten du bere jabetzekin, eta gutziz zilegi eta legearen arabera den arren, izurra izurtzea dela uste dute: lur-zatia saldu, dirua



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

kobratu eta elizarik gabe utzi dituzte eliztarrak; eta orain udalak lurra laga behar du erlijio jakin bateko eliza eraikitzeko. Izan ere, hitzarmeneko klausula batean bertan azaltzen da Leioako udalak kultua egitea bermatu nahi duela, argi eta garbi, Eliza Katolikoan.

Horri buruz adierazi du Leioako Udalak azaldu behar duena kultu guztiak gainerakoak mindu gabe garatzea nahi duela dela, edozein modutan. Horrela bada, hitzarmen honek diskriminazio eta gehiegikeria azaltzen duela uste dute, lur-zatia negozio bat egiteko saltzen badute, horren zati bat bertako kultura mantentzen inbertitu beharko baitute, eta ez euren beharrezan zehaztutako diren ezarri. Izan ere, beste aldean nahi dute, gaur egun dutena bota behar izateko, kultura eten ez dadin, etab. Hori guztia kontuan hartuta, herri honetan egin daitezkeen kultuetako bati gehiegi ematen zaiola uste dute. Euren ustez ez zaio mesede-traturik eman behar publikoak ez interes orokorrekoak ez diren erakundeei, eta horrelako traturik jasotzen ez duten beste kultu batzuk daude, geure herrian gero eta jarraitzaile gehiago dituztenak. Hori dela eta, ez da ona Eliza Katolikoari finantziarioa ematea. Horri buruz esan du hitzarmenean bertan azaltzen dela euren pentzura izango dela eraikuntza guztia, obretako lizentzia zergapetzen dituen udal tasa eta eskubideak izan ezik.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere talde politikoak Hitzarmen honen alde egitearen arrazoia azaldu nahi duela adierazi du. Beste ezer baino lehen San Bartolomeko herritar askok adierazitako eskaria dagoela uste dute eta Elizak, Elizbarrutiak, zerbitzua ematean etenik egin ez duela. Hori dela eta, euren ustez positiboa da Elizbarrutiarekin honako akordioa lortzea, auzoan kultuak jarraitzeko aukera emango baitu.

Era berean, positibotzat jo du eraikin berria zehazteko epe zehatzak egotea ere. Izan ere, horrela, burutzen ari den edo epe ertainean burutuko den urbanizazioa osatu ahal izango da. Berrito esan du herritarren euren eskaria dela eta hitzarmen positibotzat jo dutenez, babestu egingo dutela.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hemeretzi boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak, EAKo ordezkariarena, PPko lau zinegotzienak eta PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak; kontrako boto bi ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Ondorioz, Udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** Eliza Katolikoa – Bilboko Elizbarrutia eta Leioako Udalaren artean sinatu beharreko hitzarmena onestea, 7C “San Bartolome Historikoa” arloan eliza bat eraikitzeko aukera emango duen azalera-eskubidea sortzeko.

5º.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN

HARTUTAKO ERABAKIAK: 2005-04-22tik 2005-05-13ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopia eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopia, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

6º.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.



7º.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Honako galdera hauek egin dira:

1.- PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

A) Galdera: Bere galderak aurreko eguneko Hirigintza Batzordean egindakoarekin zerikusia duela adierazi du. Kontu hori Batzorde horretan aztertu zen orain dela ia urtebete, eta Kultur Leioaren ondoan jarri zen Jorge Oteizaren eskulturari buruzkoa da. Bere garaian komunikabideen albisteetan aipatu zen Leioan jarritako obra hori egilearen baimen egokirik gabe egin omen ziren kopia batzuei lotuta zegoela. Hori dela eta, Batzordean galdetu zuten udalak zer zekien gai horren inguruan, eta handik hona erantzun ez dutenez, atzo egindako Batzordean berriro galdetu zuten, kontu hori gaurko osoko bilkuran aurkezteko esan zitzaizela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Orain dela urtebete baino gehiago egunkarietan albiste batzuk agertu zirela adierazi du: Jorge Oteizaren jaraunsleatako batzuek esaten zuten pieza batzuk artistaren baimenik gabe egin zirela, baita batzuk bera hil ondoren ere. Horri dagokionez, bere garaian azaldu zuen eskultura Jorge Oteiza bizirik zegoela kontratatu zela. Gainera, artistari berari esan zitzaion eskultura Leioan jarri nahi zela. Azkenean, aipatutako obra Errekalde plazan jarriz kultur etxearen ingurunea nolabait aberasteko asmoa zegoela adierazi zitzaion.

Jorge Oteizak bi proposamen egin zituen: bata fase espresionistakoa zen, 50eko hamarkadakoa; bestea, berriz, hutsari buruzko azken fasekoa zen. Batzordeak irizpena eman ondoren eta Udalaren Gobernu Batzordeko alkate-udalburuak hartutako ebazpenaren bidez, fase espresionistakoa aukeratu zen. Gainera, haren fase espresionistako obren artean eskultura hori eskultura publiko bihurtu den bakarra da.

Egin beharreko eskultura aukeratu ondoren, lehenengo proposamena egin zen, neurriei eta kokapenari zegokienez, Errekalde plazaren erdian jartzea proposatu zela. Jada lekua jakinda, Jorge Oteizak haren behin betiko kokapena zehaztu zuen, esan baitzuen erdia ez dagoela inoiz erdian. Neurriei zegokienez, hasieran 9 metroko altuera izatea pentsatu zen, baina azkenean artistak eta proiektuaren arkitekto diseinatzaileak erabaki zuten 12 metrokoa izatea, eraikinarekin eta espazio publikoarekin mantendu behar zuen proportzioa zela eta. Erabakia hartu ondoren, adjudikazioa gauzatu zen, eta Udalari eskulturaren zein sei kopiaren (protokolozko opari bezala erabili beharrekoak) gainera eskubideak eman zitzaizkion, idazki hori Oteizak berak sinatu zuela. Jarraian "Proposición Dinámica" obra hornitzeko enpresa adjudikatzailea zen Alfa Arte, S.A.k aurkeztutako aurrekontua onartu zen, eta gero eskultura egiten hasi zen. Une horretantxe Jorge Oteiza hil zen, eskultura bera hil eta gero instalatu zela.

Uneoro fede onez jardun zela adierazi du, eta egunkarietan informazio hori argitaratu zenean, polizia judizialeko inspektore batek eta agente batek ahoz adierazi zioten jaraunsle batzuek ikertzeko eskatu zutela, eta horren ondorioz, Udalak eskultura baimendu, egin, instalatu eta eskatzearekin zerikusia zuten dokumentu eta kontratu guztiak emateko eskatu zioten. Halaber, beraiek egindako galdera batzuei erantzun behar izan zien, garai hartako idazkaria, Javier Bolinaga jauna, berarekin zegoela. Udalak adjudikazio espedientean zeuden administrazio dokumentu guztiak eman zituen, eta inspektoreak adierazi zuen hasieran behintzat zuzentzat jotzen zituela.

Ez da ezer gehiago jakin horren gainean. Hau da, ez da egon nolabaiteko irregulartasuna jakinarazteko oharrik. Izan ere, kontratuaren ikuspuntutik dena zuzen burutu zen, fede onez jardun zela.

Amaitzeko, egile-eskubideen lagapenarengatik diru-kopuru handia ordaindu zela adierazi du. Dena den, berak uste du obraren eta artistaren izaera kontuan hartuta, oso erosketa onuragarria izan zela, oso pieza garrantzitsua da eta. José Ramón Anda, Jorge Oteizaren ikaslea, alegia, Leioan egon



zen eskultura Ikea mendian instalatu zenean, eta harritura geratu zen “Proposición dinámica” eskultura ikustean, obrak sekulako indarra zuen eta, hori Jorge Oteizaren eskulturen ezaugarri ez bazen ere.

2.- PPko Arturo Aldecoa jaunak honakoa adierazi du:

B) Galdera: galdera Tokiko Agenda 21i buruzkoa dela adierazi du. 0 zenbakiko aldikariaren bidez jakin dute argitalpen gehiago egongo direla, eta zalantzak dituzte 7. orrialdean adierazitakoari buruz. Izan ere, non gauden eta zer egin dugun azaltzen da, eta Tokiko Agenda 21eko jardueraren lau elementu aipatzen dira: lehenengoa bi lantalderen osaera da (1.- lurraldearen antolamendu eta baliabide naturalei buruzkoa; eta 2.- gizarte politika eta ohiturei buruzkoa). Beraiek jakin nahi dute talde horiek biltzen diren, lan egiten duten eta Udaleko alderdi politikoei parte hartzen duten, beraiek uste baitute alderdiek zerbait ekarri beharko lieketela talde horiei, nahiz eta sinbolikoki izan. Horrela, talde horiek ezagutza gehiago dituzten partaideak barne hartuko lituzkete.

Era berean, aldikari horretan aipatzen den bigarren elementua lantaldeak koordinatzeaz arduratzen den Zuzendaritza Batzordearen osaera da; hirugarrena, berriz, IHOBekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailarekin Segurtasun Batzordea osatu izana, eta laugarrena, aldez, aldikariaren sorrera. Horri dagokionez, galdetu nahi dute 0 zenbakiko aldikaria eta hurrengo argitalpenak zabalduko diren, iradokizunen orriaren bidez jendeak Udalari ekimenak, ideiak edo proposamenak egiteko. Leioako eta Euskadiko zein munduko gainerako herrietako biztanleek Agenda 21 zer den ondoegi ez dakitela kontuan hartuta, proposamenetako batzuk oso erabilgarriak izan daitezke, baina behar bada horietako askok ez dute zerikusirik izango gaiarekin. Dena den, beti da ona jendeak parte hartzea.

Horri dagokionez, mota horretako argitalpenak eta sortzen doazen dokumentu guztiak –bere ustez, asko eta interesatuta dauden pertsonentzat oso erabilgarriak izango direnak- aldi berean Udalaren web orriaren argitaratzea proposatu du, jendeak horien berri izan dezan, eta dokumentuak oinarri hartuta, egokitzen dituen iradokizunak eta proposamenak egin ditzan. Bestela, oso pertsona gogotsuak alde batera utzita, hiritarren partaidetza ia hutsala da, eta hori tamalgarria da, Agenda 21en asmoa Administrazioek garapen iraunkorra lortzeko lan ildo bati jarraitzea eta gizartearen tartean egotea baita. Horretarako, batzuetan jendea bultzatu behar da, eta kasu horietan oso erabilgarriak dira txostenak, dokumentuak, bileren aktak.... Horregatik, dokumentu horiek jendearen eskura egoteko eskatu du.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Bidezko Batzordeetan jada eman den informazioaren kalterik gabe, eta bereziki aldikari honen kontratazioari dagokionean, Informazio Batzordean ematen jarraituko den informazioaren kalterik gabe, Aalborgeko konpromisoa eta iraunkortasun adierazpena sinatu ondoren une honetan kontua prozesua abiaraztea dela adierazi du, jakina. Bi dokumentu prestatzen ari dira egitura horrekin, lehen aipatu diren bi gogoeta taldeetarako. Halaber, aldikariaren bidez jendeak partaidetzaren fitxa edo mezu elektronikoa Tokiko Agenda 21 honen antolaketari bidaliz parte hartzea nahi dela adierazi du, horri dagokionean gertaera batzuk antolatuko direla. Lehenengo gertaera uztailaren hasieran izango da: aurkezpen irekia egingo zaie Tokiko Agenda 21en parte hartu nahi duten herritarrei, eta nola sortu zen, prozesua beste leku batzuetan –EAEko beste udal batzuetan eta Euskaditik kanpo- nola burutu duten eta Tokiko Agenda 21en zer sartuko den azalduko zaie, parte hartzeko gonbidapena luzatuz. Topaketa horren ondoren, parte hartu nahi duten herritarrek 1. taldean, 2.ean edo bietan sartu ahal izango dira. Bi foro horietan parte hartu ahal izango da egokitzen dituzten iradokizun guztiak idatziz edo posta elektronikoz bidaliz, eta web orriaren bidez hori guztia besteei jakinarazteko behar den mekanismoa horretarako prestatuz.

Azken batean, Tokiko Agenda 21en prozesua abiarazteko fasean daudela eta aipatutako aldikaria nolabait hasiera dela adierazi du. Une horretatik aurrera, hurrengo Batzordeetan ia amaituta dauden dokumentuak eman daitezke. Halaber, Eusko Jaurlaritza, Aldundi eta IHOBekin laguntzaz



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

“Leioako Tokiko Agenda 21”i buruzko aurkezpen orokorra egingo da, ahalik eta publizitate handiena eginez eta jende gehienari jakinaraziz.

Jarraian, 0 zenbakiko aldizkarian aipatu diren bi lantaldeak osatzeari ekingo zaio, bi taldeei buruzko gaiak aztertzen laguntzeko. Gero herritarren ekarpenak gehituko dira, eta handik aurrera, bidezko Batzordeak jarraipena egingo du. Amaitzeko, aldizkari hori web orrian dagoela adierazi du, mekanismo horren bidez komenigarritzat jotzen diren ekarpen guztiak egin ahal izango direla.

Eta gaueko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,